Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako
Foru Auzitegi Administratiboa

Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Lehendakaria / Presidente
Imanol Zubizarreta Arteche

Kidea/Vocal
Mikel Ulazia Etxabe

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria
Nekane Orbegozo Zurutuza

**Resolución 11/2023 Ebazpena**
Recurso 3/2023 Errekurtsoa

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) elkarteak indarkeria matxistaren emakume biktimentzako berehalako edo egonaldi laburreko harrera zentroko zerbitzua (Urrats 1), egonaldi ertaineko harrera zentroko zerbitzua (Urrats 2) eta autonomia pisuetako zerbitzuaren kontratuaren (2022/110 espedientea) baldintza agirien aurka ezarritako kontratazio arloko errekurtso berezian, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato del servicio del centro de acogida inmediata o de corta estancia (Urrats 1), centro de acogida de media estancia (Urrats 2) y pisos de autonomía para mujeres víctimas de violencia machista (expediente 2022/110), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENENGOA.-** 2023ko urtarrilaren 25ean Auzitegi honen erregistro elektronikoan aurkeztutako idatziaren bidez, AGISASek kontratazio arloko errekurtso berezia aurkeztu zuen ebazpen honen sarreran aipatzen den kontratua arautzen duten baldintza agirien aurka; errekurtso hori erregistratu zen 3/2023 zenbakiarekin.

**BIGARRENA**.- Auzitegiak Urtarrilaren 26an Gizarte Politiketako Departamentuari bidali zion errekurtsoa, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion, eta otsailaren 17an jaso ziren.

**HIRUGARRENA**.- SPKLren 56.3 artikulua

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 25 de enero de 2023, AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos que rigen el contrato citado en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 3/2023.

**SEGUNDO.-** El día 26 de enero el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 17 de febrero.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3

betetze aldera, errekurtsoaren berri eman zitzaien proposamena aurkeztu zuten hiru lizitatzaileei, hots, SUSPERGINTZA, ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN SOCIAL elkarteari, EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOAS, S.A enpresari eta FUNDACIÓN PARA EL ESTUDIO Y LA PROMOCIÓN DE LA ACCIÓN SOCIAL fundazioari, bost egun balioduneko epean alegazioak egin zitzaten; epe hori igarota, alegazioak aurkeztu ditu SUSPERGINTZA, ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN SOCIAL enpresak.

LCSP, se dio traslado del recurso a las tres licitadoras que habían presentado proposición, SUSPERGINTZA, ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN SOCIAL; EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A y; FUNDACIÓN PARA EL ESTUDIO Y LA PROMOCIÓN DE LA ACCIÓN SOCIAL, para que pudieran formular alegaciones en el plazo de cinco días hábiles, transcurrido el cual, las ha presentado SUSPERGINTZA, ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN SOCIAL.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### Errekurtsoaren onargarritasuna

**LEHENENGOA.- Xedea.**

Errekurtsoa jarri da zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka. Kontratu horren balio zenbatetsia 3.217.869 euro da.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio alorreko errekurtso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikuluak, 1 a) eta 2 a) apartatuetan.

**BIGARRENA.- Eskumena.**

Errekurtso hau ebazteko eskumena Auzitegi honi dagokio, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

**HIRUGARRENA.- Epea**

Errekurtsoa SPKLk 50.1.b) artikuluan aurreikusten duen hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta baldintza agiriak 2023ko urtarrilaren 3an argitaratu zirela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.- Objeto.**

El recurso se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 3.217.869 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 a) y 2 a) del artículo 44 LCSP.

**SEGUNDO.- Competencia.**

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**TERCERO.- Plazo.**

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, el día 3 de enero de 2023.

**LAUGARRENA.- Legitimazioa.**

Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agirien kontratuaren xedearekin zerikusia duten interesak ordezkatzen dituen elkartea delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defendatzen dituelako.

**CUARTO.- Legitimación.**

La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

**<u>Auziaren mamia</u>**

**BOSGARRENA.- Errekurtsoa jarri zaion jarduketa.**

Diputatuen Kontseiluak 2022ko abenduaren 20an hartutako erabakiaren bidez, eta Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatu titularrak eskatuta, onartu zen berehalako edo egonaldi laburreko harrera zentroko zerbitzua (Urrats 1), egonaldi ertaineko harrera zentroko zerbitzua (Urrats 2) eta indarkeria matxistaren emakume biktimentzako autonomia etxebizitzak kontratatzeko espedientea (2022/110 espedientea), baita kontratazioa zehaztu behar duten baldintza administratibo berezien agiria eta ezaugarri teknikoen agiria ere.

Kontratuaren xedea da egoitza harrerako zerbitzua ematea zentro eta etxebizitza horietan, indarkeria matxistaren biktima diren adinez nagusiko emakumeei edo adingabe emantzipatuei, haien seme-alaba adingabeei eta emakume horien ardurapean dauden beste pertsona batzuei (adinez nagusiak diren seme-alabak eta mendeko helduak), biktimei ahalduntzeko aukera ematen dien arreta eta esku-hartze ikuspegi feminista batetik. Genero autokontzientzia eta egitura sexistak ezagutzeko lana sustatuko da, emakumeek jasaten duten indarkeria egoeraren elementu adierazgarriak diren neurrian.

Kontratuaren baitan, hau kudeatuko da:

**<u>Fondo del asunto</u>**

**QUINTO.- La actuación recurrida.**

Mediante acuerdo adoptado el 20 de diciembre de 2022 el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral titular del Departamento de Políticas Sociales, aprobó el expediente de contratación del servicio del centro de acogida inmediata o de corta estancia (Urrats 1), centro de acogida de media o larga estancia (Urrats 2) y pisos de autonomía para mujeres víctimas de violencia machista (Expte: 2022/110), así como el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el de prescripciones técnicas (PPT) que han de regir la contratación.

El contrato tiene por objeto prestar en esos centros y pisos el servicio de acogida residencial a mujeres mayores de edad o menores emancipadas víctimas de violencia machista, a sus hijos e hijas menores de edad y a otras personas a su cargo que dependan de estas mujeres (hijos e hijas mayores de edad y/o personas adultas dependientes), desde una perspectiva de atención e intervención feminista y empoderante para las víctimas. Se promoverá la autoconciencia de género y el reconocimiento de las estructuras sexistas como elementos significativos en la situación de violencia que enfrentan las mujeres.

El contrato comprende la gestión de:

-berehalako edo egonaldi laburreko harrera zentro bat. Hamabi leku egongo dira, hemeretzi izatera ere heldu daitezkeenak, mendekoak aintzakotzat hartuta. Zentroan, lehen harrerako esku-hartzeak egingo dira hogeita lau orduetan, egunero: indarkeria matxistaren emakume biktimen eta haien seme-alaben balorazioa, diagnostikoa, orientazioa eta urgentziazko bizitokia;

-un centro de acogida inmediata o de corta estancia con capacidad para doce plazas ampliables a diecinueve, contando las personas dependientes, en el que se realizan intervenciones de primera acogida durante las veinticuatro horas del día, todos los días del año, incluidas la valoración, el diagnóstico, la orientación y el alojamiento de urgencia de mujeres víctimas de violencia machista y sus hijos e hijas;

-egonaldi ertaineko harrera zentro bat. Zortzi leku egongo dira, hamasei ere izan daitezkeenak, mendekoak aintzakotzat hartuz. Bizitoki zerbitzua eskainiko da laguntza trinkoarekin: esku-hartze psikosoziala, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea eta gizartea akonpainamendua. Halatan, langile tekniko espezializatuak egon behar dira beti;

-un centro de acogida de media estancia con capacidad para ocho plazas ampliables a dieciséis, contando las personas dependientes, que ofrece un servicio de alojamiento con apoyos intensivos de intervención psicosocial, socioeducativa y de acompañamiento social, que requieren la presencia permanente de personal técnico especializado;

-eta egonaldi ertaineko lau etxebizitza. Guztira, hamar leku egongo dira indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat eta haien seme-alabentzat, intentsitate txikiko laguntza behar badute eta une oro langileak egotea behar ez bada.

-y cuatro pisos de media estancia con una capacidad de diez plazas en total para mujeres víctimas de violencia machista y sus hijos e hijas, que precisen un apoyo de baja intensidad que pueda prestarse sin presencia permanente de personal.

Ezaugarri teknikoen agiriko 5. apartatuan “orientazio gisa eta izaera murriztailerik gabe” azaltzen da zer prestazio eskaini behar dituzten profil profesionalek. Halaber, 7. apartatuan zehaztu da entitate esleipendunak zuzendaria, koordinatzaile teknikoa eta diziplina anitzeko taldea izan behar dituela; zehazki, psikologiako, gizarte laneko, gizarte hezkuntzako eta gizarteratzeko profesional espezializatuek osatu behar dute taldea, eta zereginak ere jasota daude. Eta 8. apartatuan, zuzendariak eta koordinatzaile teknikoak eduki behar dituzten titulazioa eta prestakuntza finkatzen dira, baita diziplina anitzeko taldeko kideen aurrez aurreko ordu kopurua ere.

El PPT describe en el apartado 5, “*de forma orientativa y no restrictiva*”, las prestaciones a desarrollar por los diferentes perfiles profesionales; concreta en el apartado 7 que la entidad adjudicataria deberá disponer de un/a director/a, un/a coordinador/a técnico/a y un equipo multidisciplinar compuesto por profesionales especializados de la psicología, trabajo social, educación social e integración social, cuyas funciones detalla; y en el apartado 8 fija los requisitos de titulación y formación que deben cumplir el/la directora/a y el/la coordinador/a técnico/a, así como el número de horas de presencia de los integrantes del equipo multidisciplinar.

Errekurtsoan, AGISASek esatekoak ditu baldintza administratibo berezien agiriko eta ezaugarri teknikoen agiriko hainbat alderdiri buruz. Goi-mailako gizarteratze teknikarientzat arbitrarioak

En su recurso AGISAS objeta diversos aspectos del PCAP y del PPT alegando que resultan arbitrarios y discriminatorios para los Técnicos Superiores en Integración Social (TSIS) y que

eta diskriminatzaileak direla argudiatzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak 116/2021 epaian adierazitakoa hausten duela, zerbitzu bera kontratatzeko Foru Aldundiak lehendik egindako beste lizitazio bat dela eta.

contravienen lo señalado en la sentencia 116/2021 de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (TSJPV) en relación con una licitación anterior de la Diputación Foral para contratar este mismo servicio.

**SEIGARRENA.- Arau esparrua.**

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako bizitoki zentroak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoaren baitan daude, eta katalogo hori Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan araututa dago, eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan garatuta (I. Eranskineko 2.4.6 fitxa).

Lege horretako 78.3 artikuluan xedatzen da Eusko Jaurlaritzak zehaztuko dituela Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezko diren jarduera profesionalak gauzatzeko egokienak diren gaikuntza profesionalak.

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako harrera errekurtsoak irailaren 11ko 148/2007 Dekretuan araututa daude. Horren helburua da horrelako baliabideen irizpideak eta gutxieneko kalitate eta funtzionamendu baldintzak erregelamenduz finkatzea Euskal Autonomia Erkidegoan, titularra edonor dela ere.

Hala, 4. artikuluan aipatzen da horrelako baliabideen printzipio gidarietako bat profesionalizazioa dela [i) letra]: “baliabideak bete beharreko funtzioei dagokien kualifikazio teknikoa duten profesionalen esku egon daitezen. Profesional horiek lana behar bezala egiteko baliabide eta bitarteko egokiak eta nahikoak izan beharko dituzte”.

Giza baliabideei dagokienez, 17. eta 51. artikuluetan finkatzen da harrera zerbitzuak zuzendaritzaz arduratutako pertsona bat izan

**SEXTO.- El marco normativo.**

Los centros residenciales para mujeres víctimas de maltrato doméstico forman parte del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, regulado por el artículo 22 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y desarrollado por el Decreto 185/2015, de 6 de octubre (ficha 2.4.6 de su Anexo I).

El artículo 78.3 de la citada Ley dispone que el Gobierno Vasco determinará las cualificaciones profesionales idóneas para el ejercicio de las actividades profesionales necesarias para la aplicación del Catálogo de Prestaciones Sociales.

Los recursos de acogida para mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico están regulados en el Decreto 148/2007, de 11 de septiembre, que tiene por objeto establecer reglamentariamente los criterios y condiciones mínimas de calidad y funcionamiento de estos recursos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cualquiera que sea su titularidad.

El artículo 4 señala que un principio rector de tales recursos es la profesionalización [letra i)], con el propósito de que sean atendidos por profesionales con la cualificación técnica correspondiente a las funciones que desempeñan, debiendo contar siempre con los medios y recursos idóneos y suficientes para desarrollar su trabajo.

En lo que a recursos de personal se refiere, los artículos 17 y 51 exigen que los recursos de acogida cuenten con una persona responsable de la

beharko duela, eta profesionalekin osatutako diziplina anitzeko talde tekniko bat izan beharko du. Profesional horiek jorratzen diren funtzioak betetzeko beharrezkoa den kopuru eta kualifikazio egokia izango dute.

dirección, así como con un equipo técnico multidisciplinar compuesto por profesionales especializados, en número suficiente y con la cualificación necesaria e idónea para realizar las funciones que en dichos preceptos se contemplan.

**ZAZPIGARRENA.- Aurreko lizitazioa bertan behera uztea.**

**SÉPTIMO.- El desistimiento de la anterior licitación.**

Errekurtsoa behar bezala ebazteko, kontratu berari buruzko aurreko lizitazioarekin gertatu zena kontuan hartu behar dugu. Zehatz-mehatz, Diputatuen Kontseiluak 2022ko apirilaren 12an hartutako erabakiaren bidez onartu zen.

Para abordar adecuadamente la resolución del recurso hemos de tener en cuenta lo sucedido en la anterior licitación del contrato relativo a este mismo servicio, aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral, de 12 de abril de 2022.

Erabaki horren bitartez, berehalako edo egonaldi laburreko harrera zentroko zerbitzuaren (Urrats 1), egonaldi ertaineko harrera zentroko zerbitzuaren (Urrats 2) eta indarkeria matxistaren emakume biktimentzako autonomia etxebizitzen espedientea onartu zen (2022/25 espedientea).

Mediante el mencionado acuerdo, se aprobó el expediente del Servicio del centro de acogida inmediata o de corta estancia (Urrats 1), centro de acogida de media estancia (Urrats 2), y los pisos de autonomía para mujeres víctimas de violencia machista (Expte: 2022/25).

AGISASek kontratazioaren arloko errekurtso berezi bat aurkeztu zuen horren aurrean, eta, errekurtsoaren idatzian, ezaugarri teknikoen agiriko apartatu jakin batzuk ezeztatzeko eskatu zuen: 5.1, 7.3.1, 7.3.2, 7.3.3, 8.1, 8.2, 8.3 eta 8.4.5 apartatuak. Haren ustetan, beste lanbide batzuei begira diskriminatzaileak dira; zehazki, goi-mailako gizarteratze teknikari titulua dutenei begira. Era berean, baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 20. atala ere ezeztatzeko eskatu zuen, egikaritzeko baldintza bereziekin lotuta dagoena, berdintasun printzipioaren kontra doalakoan eta diskriminatzailea delakoan.

AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación ante el mismo y en el escrito de recurso se solicitó la anulación de diferentes apartados del pliego de prescripciones técnicas (apartados 5.1, 7.3.1, 7.3.2, 7.3.3, 8.1, 8.2, 8.3 y 8.4.5) considerando que eran discriminatorios con referencia a otras profesiones, concretamente, con las personas que ostentan la titulación de TSIS. También se solicitó la anulación del apartado 20 del cuadro de características del PCAP, referido a las condiciones especiales de ejecución, por considerarlo contrario al principio de igualdad y resultar discriminatorio.

Errekurtsogileak eskatzen duena aztertu ostean, Gizarte Politiketako Departamentuak proposatu zuen errekurtsoan alegatutako eskaerak kontuan hartzea, 2022/25 espedientea onartzeko prozedura bertan behera utziz eta prozedura berria onartuz, ezaugarri teknikoen agiriak berriz prestatu ondoren. Oraingoan agiri horiek aurkaratu dira; zehazki, 5.1, 7.3.1, 7.3.2, 7.3.3, 7.3.4 eta 8.3 apartatuak, baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako zenbait atalekin batera

Analizadas las pretensiones de la recurrente, el Departamento de Políticas Sociales propuso acoger las pretensiones alegadas en el recurso, desistiendo del procedimiento que aprobaba el expediente 2022/25 y aprobando un nuevo procedimiento, previa elaboración de unos nuevos pliegos de prescripciones técnicas que son los ahora impugnados, concretamente en sus apartados 5.1, 7.3.1, 7.3.2, 7.3.3, 7.3.4, y 8.3 junto con algunos de los apartados del cuadro de

(4, 14.3 eta 17).

**ZORTZIGARRENA.- Aurkaratu diren agiriak.**

Ezaugarri teknikoen agiriko 5.1 apartatuan, honela adierazita daude profil profesionalek garatu beharreko gizarte zerbitzuen prestazioak:

*Ondoren proposatzen diren lanbide profilek gutxienez garatutako prestazio hauek eskainiko dira, modu orientagarrian eta ez murriztailean:"*

*Gizarte Zerbitzuen prestazioak:*

*"**a) Informazioa:** Gizarteratzeko, autonomiarako eta gizarte-ongizaterako lagungarri izan daitezkeen eskubide, zerbitzu eta prestazio ekonomikoei buruzko informazio espezifikoa eskaintzea.*

*Profil profesionala: Gizarte lana*

*__b) Balorazio espezializatua eta jarraipenekoa__: Baliabidearen Banakako Ekintza Planaren aldizkako ebaluazioak egitea, denboraz eta formaz arreta pertsonalizatuko planean ezarritakora egokituta. Bai diagnostikoa egiterakoan, bai banakako programazioa egiterakoan, ezinbestekoa izango da erabiltzailearen parte-hartzea, eta haren gogoak, lehentasunak eta gaitasunak hartuko dira kontuan.*

*Profil profesionala: Gizarte Lana /Psikologia / Gizarte Hezkuntza.*

*__c) Gizarte Diagnostiko Espezializatua__: Arreta Pertsonalizatuko Plan baten esparruan esku-hartze egokia zehazteko dituen gizarte-premien eta gaitasunen deskribapen eta balorazio profesionala, betiere, diagnostikoaren ondoren, diagnostikoa egiteko eta jarraipena eskatzen duen esku-hartze bat egiteko beharra baieztatzen bada.*

*Profil profesionala: Gizarte Lana / Psikologia.*

*__d) Bitartekaritza:__ Gaitasun sozialak garatzera eta erabiltzailearen eta bere ingurune familiarraren edo komunitarioaren arteko elkarrekintza hobetzera bideratzea.*

*Profil profesionala: Gizarte Hezkuntza / Gizarte Lana*

*__e) Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea:__ Hezkuntza*

características del PCAP (4, 14.3 y 17).

**OCTAVO.- Los pliegos impugnados.**

El apartado 5.1 del PPT enuncia del siguiente modo las prestaciones de servicios sociales a desarrollar por los diferentes perfiles profesionales:

*"Se ofrecerán al menos las siguientes prestaciones desarrolladas, por los diferentes perfiles profesionales propuestos a continuación, de forma orientativa y no restrictiva:"*

*Prestación de Servicios Sociales:*

*"**a) Información**: Ofrecer información específica sobre los derechos, servicios y prestaciones económicas que puedan favorecer su integración social, autonomía y bienestar social.*

*Perfil profesional: Trabajo Social*

*__b) Valoración especializada y de seguimiento__: Realizar evaluaciones periódicas del Plan Individual de Acción del recurso, ajustado en tiempo y forma a lo establecido en el Plan de atención personalizada. Tanto el diagnóstico como la programación individual tendrán que hacerse con la participación de la persona usuaria y teniendo en cuenta sus deseos, preferencias y capacidades.*

*Perfil profesional: Trabajo Social / Psicología / Educación social.*

*__c) Diagnóstico Social Especializado__: Descripción y valoración profesional de las necesidades sociales y capacidades que presenta al objeto de determinar la intervención adecuada en el marco de un Plan de Atención Personalizada siempre que, tras el diagnóstico, se confirme la necesidad de elaborarlo y realizar una intervención que requiera seguimiento.*

*Perfil profesional: Trabajo Social / Psicología.*

*__d) Mediación-Intermediación__: Orientar el desarrollo de competencias sociales y a la mejora de la interacción entre la persona y el medio familiar, grupal o comunitario en el que se desenvuelve.*

*Perfil profesional: Educación social o Trabajo Social.*

*__e) Intervención socioeducativa__: Relación educativa con una*

*harremana profesional batekin, jarrera eta ohitura desegokiak aldatzeko, eta ohitura eta jarrera egokiak bereganatzeko, edozein testuingurutan autonomiaz moldatzea eta gizarteratzea lortzeko. Jarduera horien artean daude, besteak beste: hezkuntzako aisi jarduerak, kaleko hezkuntza, familiako hezkuntza, etxeko hezkuntza eta krisi egoeran dauden pertsonei eta familiei zuzendutako orientazioa.*

*Profil profesionala: Gizarte Hezkuntza /*

***f) Esku-hartze psikosoziala**: Gizarteratzeko edo modu autonomoan moldatzeko baliagarri diren pertsonen jokabideak eta inguruneko testuinguru eta egoerak aldatzera eta hobetzera bideratutako esku-hartzea. Xedetzat du ahulezia eta zailtasun sozialeko egoeretatik eratorritako ondorio psikologikoak prebenitzea eta arintzea, eta pertsonari edo familiari gizarteratzea eta, ondorioz, bizimodu egokigarri eta autonomoa garatzea oztopatzen dioten alderdi eta zailtasun psikologikoak aztertzea.*

*Profil profesionala: Psikologia (berariazko foru zerbitzuaren osagarri gisa).*

***g) Oinarrizko lagun egite soziala**: Haren helburua da erabiltzailearen garapen autonomoa eta gizarteratzea hobetzea, haren egoera kontrastatzea ahalbidetuz, autonomia pertsonala mantentzeari edo garatzeari eta gizarteratzeari dagokionez dituen helburuak azalduz eta, horiek lortzeko, prozesu batean laguntza instrumentala, emozionala, hezkuntzakoa eta harremanetakoa eskaintzeko gai izango den erreferentziazko pertsona bat edukiz.*

*Emakume erabiltzaileek tokiko baliabideetan parte har dezaten sustatuko da, baliabide horietan beren genero-egoeraz autokontzientzia gara baitezakete, bai eta beren egoera pertsonalean eragina duten egitura sexistei dagokienez ere.*

*Profil profesionala: Gizarte Hezkuntza / Gizarte Lana / Gizarteratzea".*

Harrera zentroetako eta etxebizitzetako diziplina anitzeko talde teknikoa jorratzen da 7.3 apartatuan. Nork osatzen duten taldea finkatzen da: "Psikologian, gizarte lanean eta gizarte hezkuntzan espezializatutako profesionalek osatzen dute". Ondoren, eginkizun orokorren berri ematen du, eta espezifikoak ere aipatzen ditu profil profesional bakoitzerako. Era berean, eginkizunen banaketa bat proposatzen du, eta berariaz eta modu nabarmenean dio proposamena "orientazio gisa eta izaera murriztailerik gabe" adierazten dela.

*o un profesional, que permite modificar actitudes y hábitos inadecuados y adquirir actitudes y hábitos adecuados para el desenvolvimiento autónomo y la integración social en cualquier contexto. Se incluyen en ella, entre otras posibles, las actividades de ocio educativo, educación de calle, educación familiar, educación doméstica y orientación a personas y familias en situación de crisis. (...)*

*Perfil profesional: Educación social.*

***f) Intervención psicosocial**: Orientada a modificar y mejorar las situaciones y contextos del entorno y de los repertorios conductuales para su desenvolvimiento autónomo o integración social. Persigue prevenir y paliar las consecuencias psicológicas derivadas de las situaciones de vulnerabilidad y dificultad social y abordar los factores y las dificultades de carácter psicológico que dificultan a la persona o familia su integración social y, por consiguiente, el desarrollo de un estilo de vida adaptativo y autónomo.*

*Perfil profesional: Psicología (como complemento al servicio foral específico).*

***g) Acompañamiento social básico**: Su objetivo es mejorar el desenvolvimiento autónomo e integración social de la persona usuaria, permitiéndole contrastar su situación, explicitar sus objetivos en relación con el mantenimiento o desarrollo de su autonomía personal y su integración social y contar, para alcanzarlos, con una persona de referencia que, a lo largo de un proceso, sea capaz de ofrecerle apoyo instrumental, emocional, educativo, relacional.*

*Se impulsará la participación de las mujeres usuarias en los recursos locales existentes en los que pueda desarrollar una autoconciencia de su condición de género, así como de las estructuras sexistas que inciden en su situación personal.*

*Perfil profesional: Educación Social/ Trabajo Social/ Integración Social".*

Por su parte, el apartado 7.3 aborda la composición del equipo técnico multidisciplinar de los centros de acogida y pisos. Este apartado establece que este equipo se compone de *"profesionales especializados de la psicología, trabajo social, educación social e integración social"*. A continuación, establece sus funciones en general, y de manera específica para los diferentes perfiles profesionales que lo conformen, y propone una distribución de funciones para esos perfiles estableciendo de forma expresa y destacada que se trata de una propuesta

*"orientativa y en ningún caso restrictiva".*

Ezaugarri teknikoen agiriko 8.3 apartatuan, zentroetan eta etxebizitzetan behar diren langileak jorratzen dira: diziplina anitzeko taldea, psikologian, gizarte lanean, gizarte hezkuntzan eta gizarteratzean titulatutako pertsonek osatua. Taldearentzako banaketa bat proposatzen da, orientazio gisa eta izaera murriztailerik gabe, eta orduak esleitzen dira profil profesionalen arabera, egunez eta gauez.

El apartado 8.3 del PPT se centra en el personal necesario, tanto en los centros como en los pisos: un equipo multidisciplinar compuesto por personas tituladas en psicología, en trabajo social, en educación social, y en integración social. Propone una distribución para el equipo, de forma orientativa y sin carácter restrictivo, con una asignación de horas para los diferentes perfiles profesionales, tanto en horario diurno, como en horario nocturno.

Baldintza administratibo berezien agiriari dagokionez, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ezaugarrien taulako 4. atalean dago, eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 100.2 artikuluari jarraikiz, oinarrizko aurrekontua prestatzeko aintzat hartu diren kategoria profesionalak jaso dira. Kategoria horietan ez dago goi-mailako gizarteratze teknikarien titulua.

En cuanto al PCAP, el punto 4 del cuadro de características se refiere al presupuesto base de licitación, y recoge, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 100.2 de la LCSP, las categorías profesionales que se han tenido en cuenta a la hora de confeccionar ese presupuesto base. En esas categorías, no se incluye los TSIS.

Taula bereko 14.3 atalean, kaudimen teknikoa edo profesionala jorratzen da. Kaudimen hori egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako kontratuaren xede bereko edo antzeko zerbitzu edo lan nagusien zerrenda bat aurkeztu beharko da (amaitutako), gutxienez 750.000,00 euroko balioa izan dutenak, horien zenbatekoak, datak eta hartzaileak, publikoak zein pribatuak, adierazita.

El punto 14.3 del mismo cuadro se refiere a la solvencia técnica o profesional, para cuya acreditación, se exige una relación de servicios o trabajos realizados (habiendo finalizado) de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato en los últimos tres años que indique importe, fechas y el destinatario, público o privado de los mismos, por valor de 750.000 euros.

Aurrerago, 17. atalean, azpikontratazio posible baten aurrean kritikotzat jotzen diren eginkizunak aipatzen dira. Besteak beste, hauek agertzen dira: zentroaren zuzendaritza lanak, koordinazio teknikoko lanak, psikologiako lanak, gizarte langintzako lanak eta gizarte hezkuntzako lanak.

El punto 17 califica las tareas del contrato que se consideran críticas a los efectos de una posible subcontratación. Entre esas tareas, se incluyen las tareas de dirección del centro, las de coordinación técnica, las de psicología, las de trabajo social y las de educación social.

**BEDERATZIGARRENA.- Entitate kontratatzailearen jarrera.**

**NOVENO.- Posición de la entidad contratante.**

Entitate kontratatzailearen jarrera jaso da errekurtsoari buruz Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako zerbitzuburuak sinaturiko txostenean eta Departamentuko Idazkaritza Teknikoaren

La postura de la entidad contratante se ha reflejado en el informe acerca del recurso suscrito por el Jefe del Servicio de Inclusión Social y Atención a Mujeres Víctimas de Violencia Machista y en el informe de la Secretaría Técnica

txostenean.

Txosten horietako lehenengoan aditzera ematen da Zerbitzuak ezaugarri teknikoen agiria aldatu zuela aurreko lizitazioa bertan behera utzitakoan. Zehazki, ezaugarri teknikoen agiriko 5.1, 7.3, 8.1, 8.2 eta 8.3 apartatuak berridatzi dira, eta berariaz finkatzen da planteamendua orientazio gisa eta inolako izaera murriztailerik gabe egin dela. Planteamenduaren oinarria bi gai hauek dira:

- Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzuak finkatuta duen esku-hartze eredua. Eredu horren abiapuntuak dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoaren baterako hausnarketa prozesu bat eta indarkeria matxistaren ondoriozko arreta zerbitzuen ebaluazioa.

- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzeko zentroetako langileen egungo konfigurazioaren errealitatea eta langileak subrogatzeko legezko betebeharra.

Planteamendua orientazio gisa eta izaera murriztailerik gabe aurkezten denez, kontratuaren prestazioetarako behar diren gaitasunak dituen edozein profesional tituludun bat (goi-mailako gizarteratze teknikaria izan edo ez) proposa daitekeela uste du. Horrenbestez, ez da baztertzen ezaugarri teknikoen agirian aipatutako titulaziorik, ezta goi-mailako gizarteratze teknikariena ere. Beraz, enpresa lizitatzaileek egokien deritzen profesional banaketa aurkez dezakete beren eskaintzan, ezaugarri teknikoen agirian proposatzen denera mugatu gabe.

Bestalde, Idazkaritza Teknikoaren txostenean argudio berak garatzen dira, zabalago. Orobat, bat etorriz ezaugarri teknikoen agiriko 5.1, 7.3 eta 8.3 puntuetan xedatutakoarekin, kontratuaren prestazioak gauzatzeko behar diren gaitasun

del Departamento.

El primero de ellos informa que el citado Servicio procedió a modificar la redacción de los Pliegos Técnicos tras el desistimiento de la previa licitación del mismo Servicio. Concretamente, se ha reformulado el contenido de los apartados 5.1, 7.3, 8.1, 8.2 y 8.3 del PPT, estableciendo de forma expresa que el planteamiento realizado es orientativo y en ningún caso restrictivo. Dicho planteamiento responde a dos cuestiones:

- El modelo de intervención establecido por el Servicio para la atención a mujeres víctimas de violencia machista. Dicho modelo parte de un proceso de reflexión conjunto con el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de la evaluación de los servicios de atención a la violencia machista.
- La realidad de la configuración actual de la plantilla que atiende a los centros de atención a mujeres víctimas de violencia machista y la obligación legal de subrogación de su personal.

Considera que el carácter orientativo y no restrictivo del planteamiento permite que se proponga cualquier profesional titulado (sea TSIS o no) que disponga de las competencias necesarias para desempeñar las prestaciones del contrato. Por lo tanto, no excluye ninguna de las titulaciones señaladas en el PPT, incluida la de TSIS, por lo que las empresas licitadoras tienen la libertad de presentar en su oferta la distribución de profesionales que crean más oportuna, sin tener que ceñirse a lo propuesto en el PPT.

El informe de la Secretaría Técnica, por su parte, desarrolla esos mismos argumentos, aunque con mayor amplitud. Considera también que, de acuerdo con lo establecido en los puntos 5.1, 7.3 y 8.3 del PPT, cualquier profesional titulado que

egokiak dituen edozein profesional tituludunek kontratuaren egikaritzean parte hartu dezake, haren ustez, eta enpresa lizitatzaileei dagokie egokien deritzen eginkizun banaketa proposatzea, Departamentuak orientazio gisa eta izaera murriztailerik gabe egindako planteamendura lotzeko beharrik ez baitago.

disponga de las competencias necesarias e idóneas para desempeñar las prestaciones del contrato puede participar en su ejecución, y serán las empresas licitadoras las que deban proponer la distribución de funciones que consideren más adecuadas, sin tener que ceñirse al planteamiento orientativo y no restrictivo que se plantea por el Departamento.

Bestalde, AGISASek irregulartasunak ikusi ditu baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako atal jakin batzuetan (4, 14.3 eta 17), eta, horri dagokionez, hau dio:

- Ez dira 4. atalean goi-mailako gizarteratze teknikariak aipatzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 100.2 artikuluko eskakizuna betetzen delako: “lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan, zenbatesten diren soldata kostuak jasoko dira erreferentziako lan hitzarmenetik abiatuta, xehatuta eta generoaren zein kategoria profesionalaren arabera bereizita”. Eta bete ahal izateko, subroga daitezkeen egungo langileak hartu dira kontuan. Hala ere, horrek ez ditu zertan baldintzatu profil profesional bakoitzari esleitutako eginkizunak, eta ez da zertan goi-mailako gizarteratze teknikarientzako muga izan.
- Ez da argitu zergatik jotzen den irregulartzat ezaugarrien taulako 14.3 atalean xedatutakoa, enpresaren kaudimen tekniko edo profesionalaren harira.
- Bestalde, 17. atalean jasota daude kontratuaren xede diren lanen zati bat azpikontratatu ahal izateko baldintzak. Horri dagokionez, kontratazio organoaren gaitasuna defendatzen du, kontratuaren baitako zer eginkizun diren kritikoak identifikatu eta erabakitzeko, eta, beraz, eginkizun horien ezingo dira azpikontratatu.

En cuanto a los puntos del cuadro de características del PCAP en los que AGISAS aprecia irregularidades (apartados 4, 14.3 y 17), señala lo siguiente:

- El apartado 4 no menciona a los TSIS porque responde a la exigencia del artículo 100.2 de la LCSP (*el presupuesto base de licitación indicará de forma desglosada y con desagregación de género y categoría profesional los costes salariales estimados a partir del convenio laboral de referencia…*) y, para su cumplimiento, se ha tenido en cuenta el listado de personal actual susceptible de subrogación, sin que ello predetermine necesariamente las funciones atribuidas a cada perfil profesional, ni suponga limitación alguna para los TSIS.
- No se aclara cual es el motivo por el que se califica como irregular lo dispuesto en el apartado 14.3 del cuadro de características, referido a la solvencia técnica o profesional de la empresa.
- En relación con el apartado 17, referido a las condiciones para la posible subcontratación de una parte de las labores objeto del contrato, defiende la capacidad del órgano de contratación para identificar y determinar qué tareas pueden ser críticas dentro del contrato y, por tanto, no son susceptibles de subcontratación.

**HAMARGARRENA.- Aurkeztu diren alegazioak.**

**DÉCIMO.- Las alegaciones presentadas.**

SUSPERGINTZA, ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN SOCIAL erakundeak (aurrerantzean, SUSPERGINTZA) lehengo kontratua bertan behera uztea dela-eta zer gertatu den azaltzen du aurrena. Kontratuaren azken esleipenduna izan zenez gero, kontratua egikaritzen jarraitzen duela dio, baina 2019an finkatutako baldintzetan. Horrenbestez, kaltea jasaten ari dela uste du, kontratuaren kontraprestazioan orain dagoen desoreka ekonomikoaren ondorioz.

SUSPERGINTZA, ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN SOCIAL (en adelante, SUSPERGINTZA), expone en primer lugar lo ocurrido con el desistimiento del contrato anteriormente señalado. Alega que, siendo la última adjudicataria de este contrato, se mantiene en la ejecución del mismo, pero con las condiciones establecidas en el año 2019, por lo que considera que sufre un perjuicio por el desequilibrio económico que existe actualmente en la contraprestación del contrato.

Orobat, ezaugarri teknikoen agirian orientazio gisa datozen talde profesionalaren diseinua eta eginkizunen banaketa aproposak eta egokiak direla argudiatzen du, kontratua behar bezala egikaritzeko.

Defiende, asimismo, que tanto el diseño del equipo profesional como la distribución de funciones que se establecen en el PPT con carácter orientativo, resultan adecuadas e idóneas para la correcta ejecución del contrato.

Haren iritziz, ezaugarri teknikoen agiriko 5.1 eta 7.3 ataletan xedatzen dena orientazio gisa eta izaera murriztailerik gabe finkatzen denez, ez da inposizio bat entitate lizitatzaileentzat. Edonola ere, kontratazio organoak kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren profil profesionalak erabakitzeko ahalmena duela defendatzen du.

Considera que lo dispuesto en los apartados 5.1 y 7.3 del PPT, precisamente porque se establece de forma orientativa y no restrictiva, no supone una imposición para las entidades licitadoras, aunque defiende la potestad del órgano de contratación para decidir los perfiles profesionales necesarios para la ejecución del contrato.

Amaitzeko, foru auzitegi honek emandako 1/2020 Ebazpena aipatzen du, zerbitzu beraren aurreko lizitazio baten ingurukoa. Dena den, aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak zuzendu egin zuela martxoaren 23ko 116/2021 epaiaren bidez.

Cita, en último término, la Resolución 1/2020 de este Tribunal Foral, dictada sobre una licitación anterior del mismo servicio, si bien es preciso apuntar que esta Resolución fue corregida por la Sala de lo contencioso-administrativo del TSJPV, mediante sentencia 116/2021, de 23 de marzo.

**Auzitegiaren oharrak.**

**Apreciaciones del Tribunal.**

**HAMAIKAGARRENA.-** Errekurtsoan mahai gainean jartzen da erabaki arbitrario eta diskriminatzaile bat ote dagoen, kontratua egikaritzeko eskatzen diren profil profesionalak eta esleitzen zaizkien eginkizunak ezaugarri teknikoen agirian jasotzeko garaian. Hortaz, lanbide tituludunen gaitasunei buruzko doktrina jurisprudentziala gogoratzea interesgarria izango da. Doktrina hori agertzen da, halaber, elkarte errekurtsogileak aipaturiko 116/2021 epaian ere,

**DECIMOPRIMERO.-** La cuestión que plantea el recurso es la existencia de una posible decisión arbitraria y discriminatoria a la hora de recoger en el PPT los diferentes perfiles profesionales exigidos para la prestación del contrato y las funciones atribuidas a cada uno de ellos. Resulta de interés, por tanto, recordar la doctrina jurisprudencial relativa a las competencias de las profesiones tituladas, incorporada también en la Sentencia 116/2021, de 23 de marzo, del TSJPV;

zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak eman baitzuen martxoaren 23an. Doktrinan behin eta berriro adierazi da, kontratazio publikoaren alorrean, *askatasuna egokitasunarekin* printzipioa gailendu egiten zaiola gaitasun esklusibotasunaren eta monopolioaren printzipioari. Era berean, printzipio hori kontratu errekurtsoen organoen ebazpenetan ere txertatu da; besteak beste, hauetan: Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren 319/2015 eta 1051/2021 ebazpenetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren 21/2022 eta 62/2022 ebazpenetan, eta foru auzitegi honen 9/2018, 1/2019 eta 5/2023 ebazpenetan.

sentencia aludida por la asociación recurrente. Esta doctrina viene señalando de forma reiterada la prevalencia en el ámbito de la contratación pública del principio de “libertad con idoneidad” sobre el de exclusividad y monopolio competencial, y ha sido también incorporada a resoluciones de los diferentes órganos de recursos contractuales [entre otras, Resoluciones 319/2015 o 1051/2021 del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC); Resoluciones 21/2022 o 62/2022 del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi (OARC) y; Resoluciones 9/2018, 1/2019 o 5/2023 de este Tribunal Foral].

Ondorio praktikoei begira, doktrina hori aplikatzeak esan nahi du parte hartzeko askatasunaren printzipio orokorrari eragiten dion kontratazioko edozein mugak legezko zuhurtziaren ondorio izan behar duela, edo, behintzat, nahikoa eta egokia den justifikazio bat egon behar du, kontratazio espedientean argi jasotzen dena. Era horretan soilik eskatu ahalko da kaudimen teknikoko baldintza gisa titulu jakin batzuk dituzten langileak egotea kontratuaren baitan, eta beste titulu batzuk baztertzea, kontratuaren xedearekin neurri batean edo bestean lotuta egon daitezkeenak.

A efectos prácticos, la aplicación de esta doctrina supone que cualquier limitación en materia de contratación que afecte al principio general de libertad de acceso, debe responder a la existencia de una reserva legal o, al menos, a una justificación suficiente y adecuada que quede claramente plasmada en el expediente de contratación. Únicamente de esta forma se podrá exigir como un requisito de solvencia técnica la incorporación al contrato de personas con unas determinadas titulaciones específicas, excluyendo otras titulaciones que pueden estar más o menos relacionadas con el objeto del contrato.

**HAMABIGARRENA.-** Kasu honetan, AGISASek argudiatzen du ezaugarri teknikoen agiriko 5.1, 7.3 eta 8.3 ataletan finkatuta datorren antolakuntza proposamenean elementu diskriminatzaileak daudela, nahiz eta orientazio gisa eta izaera murriztailerik gabe aipatu, eta elementu horiek tratu desberdintasuna eragiten dutela kontratuaren xede den zerbitzuko profesionalen artean, goi-mailako gizarteratze teknikarien kaltetan. Haren iritziz, proposamena arbitrarioa eta legez kanpokoa da, ez dagoelako justifikatuta, eta aipatu den Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 116/2021 epaian xedatutakoa urratzen duelako. Ildo beretik uste du baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 4., 14.3 eta

**DECIMOSEGUNDO. -** En el presente caso, AGISAS alega que la propuesta organizativa que se establece en los apartados 5.1, 7.3 y 8.3 del PPT, aun advirtiendo que se establece a título orientativo y no restrictivo, mantiene elementos discriminadores que generan desigualdad de trato entre los diferentes profesionales afectos al servicio objeto del contrato, en detrimento de los TSIS. Esta propuesta resulta, a su juicio, arbitraria e ilegal, puesto que no está justificada, y contraviene lo dispuesto en la sentencia 116/2021 del TSJPV anteriormente citada. Asimismo, considera que los apartados 4, 14.3 y 17 del cuadro de características del PCAP apuntalan, aunque sea de forma indirecta, la discriminación de los TSIS.

17. atalek goi-mailako gizarteratze teknikarien diskriminazioa indartzen dutela, zeharka bada ere.

Alabaina, auzitegi honen aburuz, ezaugarri teknikoen agirian adierazten bada kontratuaren xedea den zerbitzuko zeregin edo eginkizunen antolakuntza proposamena orientazio gisa eta izaera murriztailerik gabe ematen dela, horrelaxe interpretatu behar da; alegia, ulertu behar da enpresa lizitatzaileek beren eskaintzetan zehaztu behar dutela zer profesionalek parte hartuko duten kontratua egikaritzen, eta, orobat, kontraprestazioa egokia izateko profil profesionalei zer eginkizun esleitu. Errekurtsoari buruzko txostenek interpretazio hori berresten dute, eta, halaber, aitortzen dute lizitazioan parte hartu nahi duten enpresak aske direla beste egitura profesional bat finkatzeko, kontratazio organoak ezaugarri teknikoen agirian jasotakoa ez dena. Jakina, konfigurazio askatasun hori ez da erabatekoa, zeren kontratuaren xede diren zereginak gaitasun nahikoa duten profesionalek egin behar baitituzte, baina muga orokor hori kontratatutako zerbitzuaren esparruko eginkizunetarako egokitasunarekin lotuta dago. Hala, horrek ez du, beraz, inolako diskriminaziorik eragiten goi-mailako gizarteratze teknikari titulua dutenekiko.

Este Tribunal considera, sin embargo, que cuando el PPT señala que la propuesta organizativa de las tareas o funciones del servicio objeto del contrato tienen carácter orientativo y no restrictivo, debe interpretarse en esos mismos términos, es decir, entendiendo que corresponde a las empresas licitadoras determinar en su oferta los profesionales que participarán en la ejecución del contrato, así como las funciones atribuidas a cada uno de los perfiles profesionales necesarios para ejecutar correctamente la prestación. Los informes acerca del recurso confirman esta interpretación y reconocen que las empresas que quieran participar en la licitación gozan de libertad para establecer una estructura profesional diferente a la propuesta en el PPT por el órgano de contratación. Obviamente, esta libertad de configuración no es absoluta, ya que las tareas objeto del contrato deberán ser desarrolladas en todo caso por personas con la capacitación suficiente, pero este límite general responde a la exigencia de idoneidad para el desempeño de las funciones a desarrollar en el marco del servicio contratado, y su aplicación no provoca, por tanto, discriminación alguna en relación con las personas que ostentan el título de TSIS.

Agirien interpretazio hori hitzez hitzekoa da, baina, auzitegi honek urtarrilaren 26ko 5/2023 Ebazpenean eskatu bezala, hobekien egokitzen zaie kontratazio publikoa zuzentzen duten printzipioei, bereziki berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta parte-hartze askearen printzipioei. Bestalde, AGISASek aurkeztutako errekurtsoa oinarririk gabe uzten du, ezerk ez baitie enpresei eragozten ezaugarri teknikoen agiriko proposamena ez den beste era batean antolatzea eginkizunak, edo goi-mailako gizarteratze teknikariei beste zeregin bat ematea, edo zeregin zabalago bat, ezaugarri teknikoen agirian orientazio gisa proposatutakoa baino, baldin eta lana bermeekin egin badaiteke, prestakuntzan lortzen diren gaitasun profesionalak kontuan hartuta.

Esta interpretación de los pliegos responde a su dicción literal, pero también es, como ha exigido este Tribunal en su Resolución 5/2023, de 26 de enero, la que mejor se adecúa a la correcta aplicación de los principios que rigen la contratación pública, singularmente los de igualdad, no discriminación y libre concurrencia. Asimismo, deja sin fundamento el recurso presentado por AGISAS, puesto que nada impide que las empresas puedan organizar o distribuir las tareas de manera diferente a la propuesta en el PPT, y otorgar a los TSIS un papel distinto o incluso más amplio que el propuesto con carácter orientativo en el PPT, siempre que su cometido pueda desarrollarse con garantías, atendiendo a las competencias profesionales que se adquieren con su formación.

Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Arretako Zerbitzuak eta departamentu sustatzaileko Idazkaritza Teknikoak errekurtsoari buruz egindako txostenetan adierazten dutena dela eta, auzitegi honek uste du AGISASek azaldutako kontuak argitu zitezkeela informazio gehiago eskatuz edo azalpenak eskatuz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 138.3 artikuluan aurreikusten diren baldintzetan.

En atención a lo expuesto en sus informes acerca del recurso, tanto por el Servicio de Inclusión Social y Atención a Mujeres Víctimas de Violencia Machista, como por la Secretaría Técnica del Departamento promotor, este Tribunal considera que las cuestiones planteadas por AGISAS, podrían haber sido esclarecidas solicitando información adicional o la aclaración pertinente, en los términos previstos en el artículo 138.3 de la LCSP.

Gogora ekarri behar da kontratazioaren arloko errekurtso berezia legezkotasuna kontrolatzeko tresna bat dela, eta, beraz, auzitegi honek ezin du proposamen bat egokia den edo ez aztertu, xedea lizitatzaile izan daitezkeenei informazioa ematea edo, nahi izanez gero, orientatzea bada. Ez doa legearen aurka foru administrazioak finkatzea kontratatu nahi duen zerbitzuaren antolakuntza proposamen bat egitea orientazio gisa, zerbitzu horren egungo konfigurazioa aintzakotzat hartuz proposamen horretarako, eta are gutxiago jakinda esleipendun suertatzen den enpresak lan kontratu jakin batzuk subrogatu behar dituela, lizitazio berria egiten denean zerbitzuarekin lotuta daudenak.

Ha de recordarse que el recurso especial en materia de contratación es un instrumento de control de legalidad, por lo que este Tribunal no puede entrar a analizar la idoneidad de una propuesta cuya finalidad es únicamente informativa o, si se quiere, orientativa, para los potenciales licitadores. No resulta contrario a la Ley que la Administración foral establezca una propuesta de organización orientativa del servicio que pretende contratar, teniendo en cuenta para esa propuesta la configuración actual del citado servicio; más aún, conociendo que la empresa que resulte adjudicataria tiene la obligación de subrogarse en determinados contratos laborales vinculados a ese servicio en el momento en el que se realiza la nueva licitación.

Horiek horrela, baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 4., 14.3 eta 17. ataletan jasotakoa ezin da diskriminatzailetzat jo. Atal horietako lehenengoan, araudi aplikagarriarekin bat etorriz (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 100.2 artikulua), subroga daitezkeen langileen soldata kostuak kontuan hartzen dira eta xehatzen dira. Kaudimen teknikoa edo profesionalari dagokionez, errekurtsoan ez da aurkaratzeko arrazoia argitzen, baina agirian erabiltzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90.1 artikuluan aukeran ematen diren bitartekoetako bat. Azkenik, eginkizun jakin batzuk kritikotzat hartzen dira 17. atalean, eta, hortaz, ezin dira azpikontratatu. Horrek ere ez die disfuntziorik eragiten AGISASek ordezkatzen dituen profesionalei. Lehenago ondorioztatu bezala, prestakuntza desberdina duten

Partiendo de lo anterior, lo recogido en los apartados 4, 14.3 y 17 del cuadro de características del PCAP tampoco puede considerarse como discriminatorio. El primero de estos apartados, de acuerdo con la normativa aplicable (art. 100.2 LCSP), toma en consideración y desglosa los costes salariales, en este caso, del personal susceptible de subrogación. En cuanto a la solvencia técnica o profesional, el recurso no aclara el motivo de impugnación, pero el pliego se vale de uno de los medios que permite el art. 90.1 de la LCSP para su acreditación. Finalmente, la calificación en el apartado 17 de unas tareas como críticas y, por tanto, no susceptibles de ser subcontratadas, tampoco genera disfunción alguna para los profesionales representados por AGISAS. Esas tareas pueden acometerse, según se ha concluido anteriormente,

profesionalek egin ditzakete zereginak, baita goi-mailako gizarteratze teknikariek ere, beren gaitasun profesionalen baitan. Beraz, zeregin jakin batzuk kritikotzat jotzea ez da arbitrarioa edo diskriminatzailea profesionalen kolektibo horrentzat.

por profesionales con formaciones diversas, incluidos, dentro del ámbito de sus competencias o capacitaciones profesionales, los TSIS, por lo que la calificación de una serie de tareas como críticas no resulta arbitraria, ni discriminatoria para este último colectivo de profesionales.

Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileei isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a las recurrentes una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) elkarteak kontratazio arloan aurkeztutako errekurtso berezia ezestea.

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS)

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2023ko irailaren 13a**
**San Sebastián, 13 de septiembre de 2023.**